

Corpusaren egoera hobetzen: Xurioren *Imitacionearen* aleak XVIII. mendean¹ *Improving the state of the corpus: Printed copies of Xurio's Imitacionea in the 18th century*

Leyre Irure Sierra*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Mixel Xurio, parish priest of Saint Jean de Luz, translated the *Imitation of Jesus Christ* into Basque (1720). The book was published two years after the author's death, in Bordeaux, and there were, subsequently, several editions throughout the 18th and 19th centuries. By the beginning of the 17th century, Basque literature had reached its peak in some areas of Labourd. From the middle of the century, however, literary production was more limited and the language itself was notably simpler. In the first decades of the 18th century, Xurio's work was very much an exception; he is essentially an epigone of classical Lapurdian Basque.

Despite the importance of Xurio, his work has not been studied in general until now, and it also lacks the critical edition it deserves. In order to advance in the study of Xurio's book, we have used 18th-century editions as a starting point. The article focuses on the study of the relationship between these editions (*recensio*), using the methodology of philology and textual criticism.

To determine the filiation of the testimonies, we first compiled and classified the digitized copies (14 in total) available in certain digital libraries (*fontes criticae*), with the help of Vinson (1891-1898). Secondly, a formal description of each copy was made, comparing the covers and the parts of the book. This comparison allowed us to decide which edition the copies without a cover belong to (*collatio codicum*). This section provided us with information about the filiation

¹ Lan hau «*Monumenta Linguae Vasconum* 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren laguntzaz egina da. Izen bereko 2022-2023 ikasturteko Gradu Amaierako Lanaren bertsio bat da. Eskerrak eman nahi dizkiot Blanca Urgelli, GrALaren tutore modura eskaini didan laguntzarengatik. Eskerrak, halaber, Iñaki Caminori eta Iker Salaberriri egindako ekarpen eta oharrengatik, zein ASJUko berrikusle anonimoei lan honen aurreko bertsioei egindako iruzkinengatik. Hemen aurki daitezkeen akatsak nireak baino ez dira.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Leyre Irure Sierra. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateko Ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). – leyreirure@gmail.com

Nola aipatu / How to cite: Irure Sierra, Leyre (2024). «Corpusaren egoera hobetzen: Xurioren *Imitacionearen* aleak XVIII. mendean», ASJU, 58 (1), 139-174. (<https://doi.org/10.1387/asju.25163>).

Jasoa/Received: 2023-10-04; Onartua/Accepted: 2024-01-10. Online argitaratua / Published online: 2024-01-29.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

relationship between editions. In fact, the incorporation of new passages from edition to edition helped us decide which of the previous editions was used as a base to compose the new edition. Thirdly, we took and compared an initial and a final sample of each edition (*examinatio* and *selectio*). Although the samples were small, the results are plentiful and helped us clarify hitherto unanswered questions. Thanks to the initial engravings, the distribution of the parts of the content, and the conjunctive errors and the new variants found in the comparison, we managed to make a proposal of filiation relationship between editions (*constitutio stemmatis codicum*).

KEYWORDS: Xurio; Ancient and Classical Basque; Classical Labourdin; material bibliography; textual criticism.

LABURPENA: *Mixel Xurio Donibane Lohizuneko erretore zenak Jesu-Christoren Imitacionea (1720) euskarara itzuli zuen. Liburua autorea hil eta bi urtetara argitaratu eman zen, Bordelen, eta ondoren hainbat edizio izan zituen XVIII. eta XIX. mendeetan zehar. XVII. mendearen hasieratik Lapurdiko zenbait eremutan, kostaldean batik bat, euskarazko literatura erlijiosoak artean ez bezalako loraldi bat izan zuen. Mendearen erdialdetik aurrera, ordea, ekoizpenak murriztu eta euskara maila apalago batean idazten hasi ziren. XVIII. mendearen lehenengo hamarkadetan Xurio salbuespena izan zen, lapurtera klasikoaren epigonoa.*

Xurionen garrantziagatik ere, orain artean ez da oro har aztertua izan, eta zor zaion edizio kritikoa ere faltan du. Beraren liburuaren azterketan aurrera egiteko helburuarekin, abiapuntu gisa XVIII. mendeko edizioak baliatu ditugu. Lanaren muina edizio hauen arteko filiazio harremana aztertzea da (recensio), filologiaren metodologia eta testu kritika baliatuz.

Lekukotasunen filiazioa zehazteko, lehenik, liburutegi jakin batzuetan eskuragarri dauden ale digitalizatuak (guztira 14) bildu eta sailkatu ditugu (fontes criticae), Vinsonen (1891-1898) lanaren laguntzaz. Bigarrenik, ale bakoitzaren deskribapen formala egin dugu: azalak eta liburuaren atalak alderatu ditugu, eta azalik gabeko aleak zein ediziori dagozkion ere erabaki ahal izan dugu (collatio codicum). Atal honek informazio franko eman digu edizioen arteko filiazio harremanaren inguruan. Izan ere, edizioz edizio pasarte berriak txertatu izana lagungarri izan zaigu bakoitzaren oinarrian zein edizio erabili zen erabakitzeke. Hirugarrenik, edizio bakoitzetik hasierako eta bukaerako lagin bat hartu eta konparatu ditugu (examinatio eta selectio). Laginak txikiak izan arren, emaitzak oparoak dira, eta aurretik erantzun gabe genituen zalantzak argitzeko balio izan digute. Hasierako grabatuei, edukiaren atal banaketari eta konparaketan topatutako akats bateratzaileei eta aldaera berriei esker, edizioen arteko filiazio harreman proposamena egitea lortu dugu (constitutio stemmatis codicum).

HITZ GAKOAK: *Xurio; Euskara Zahar eta Klasikoa; lapurtera klasikoa; bibliografia materiala; testu kritika.*

1. Sarrera

1.1. Testuinguru historikoa eta autorea

XVII. mendeko lehen urteetan, Lapurdiko itsas hegian eta inguruetan, euskarazko liburugintzak pizkunde garaia izan zuen. Mende horren bigarren erdian ahul-tzen hasi, eta XVIII. mendean gainbehera jasan zuen.

Nabigazioaren hazkundera lapurtera klasikoaren jatorriaren arrazoitzat hartu den arren, Oihartzabalen ustetan (2001) kultura bizitzaren antolamenduak baldintzatu zituen garai hartako euskara idatziaren gorabeherak. XVII. mendearen lehen partean latina zen kultur hizkuntza nagusia Iparraldeko jendar-tean, nahiz eta frantsesa indartzen hasia izan. Hori dela eta, elizgizon burgeskumeeek idatzitako euskal liburuek

definitzen dute lapurtera klasikoa. Aro oparo haren adibide dira, esaterako, Matteredra (*Doctrina Christiana*, 1617), Etxeberri Ziburukoa (*Manual Devotionezcoa*, 1627; *Noelac*, 1632; *Eliçara erabiltceco liburua*, 1636), Axular (*Guero*, 1643) edo Pouvreau (*Guiristinoaren Dotrina*, 1656).

xvii. mendearen bukaeran euskarazko ekoizpenek behera egin zuten. Oihartzabalek (2001) azaldutakoaren arabera, burgesia frantsesez ikasteari eta irakurtzeari lotuko zaio eta frantses kultur produkzioa nagusitzen hasiko da, Hego Euskal Herrian gaztelania aspaldi kultur eta botere hizkuntza bilakatu zen bezalatsu. Hemendik aurrera euskaraz idatziriko liburuen kopurua urritu egingo da eta gehienbat maila apaleko euskaldunentzat idatziko da. Testuinguru honetan salbuespena da Xurioren obra, goi mailako euskaraz idatzia.

Mixel Xurio Azkainen jaio zen, «Martze-enia» etxean.² Apaiz ikasketak bukatu eta Donibane Lohizunera bidali zuten bikario lanetan. Ondoren, 1702an, erretore izendatu zuten. 1718an hil zen. *Jesu-Christoren Imitacionea* utzi zigun, Kempisaren lau liburuen itzulpena, Bordelen 1720an argitaratua, Guillame Boudé Boé inprimategian. Baimena Ander Druillet gotzain jaunak eman zion, 1719an. Ez da euskal literaturan *Imitacionearen* lehenengo itzulpena, ezta azkena izango ere. Aurretik Pouvreauk *Jesusen Imitacionea* itzuli bai, baina argitaratu gabe utzi zuen 1669. urte aldera. Arambillaga «izeneko apaiz batek» ere 1684. urtean *Imitacionearen* azken bi liburukak itzuli zituen euskarara (Baiona: Antonio Fauvet), Lafitteren esanetan nahiko trakeski (1931: 62), beheko aipamenean ikus daitekeen bezala. Horren ondotik Xurioren *Imitacionea* hainbatetan izan zen berriz inprimatua, Bordelen, Baionan zein Tolosa Okzitanian. Vinsonen arabera, bederatzi edizio ditugu, xviii. eta xix. mendeetan sakabanaturik (§ 1.3.1). Onaindiaren esanetan (1973), Xuriok berak ezin izan zuen liburua osorik itzuli, bukatu baino lehenago hil baitzen. Hortaz, haren ordez, laugarren liburua bere arrebak euskaratua omen.³

Ezin uka daiteke Xurioren obra euskal literaturaren erakusgarri aparta denik. Berreskura ditzagun Villasanteren hitzak (1979: 109-110):

Aunque no es la primera traducción del Kempis (pues antes había sido traducida esta obra por Arambillaga y Silvain Pouvreau), ésta era mucho más perfecta y respondía mejor a las exigencias del público euskaldun. Chourio es uno de los más egregios representantes del labortano clásico por la dignidad, nobleza y majestad de su lengua.

Modu bertsuari mintzo zaigu Lafitte ere (1931: 62):

Jadanik Pouvreau-k gure mintzaierat bihurtu zuen lan aipatua, ez ordean argitarat eman. Arambillaga deitu apez batek 1684-ean *Imitazione* bat egin zuen eskuaraz. «Egin» erran baitugu, «huts-egin» erran beharko ginuen. Beharrik Chourio-ren liburua agertu baitzen. Nahiz geroztik hunat eskuarazko *Imitazione* hoberik moldatu den, hau ez daukagu batere gutiesteko.

Lafitteren hitz horietan oinarriturik agian, honela dio Onaindiak ere (1972): «Itzai so egiñik erderakada politik dituen arren, idazle bikaiña dugu Xurio, arin ta jarioitsu bai darabil luma. Lapurdieraz ikasteko maisu dugunik ezin uka dezakegu».

² Bizitzaren inguruko datuak Onaindia (1972) lanetik atera ditugu.

³ Egun Urgell (inprimategian) datu horren harira lanean ari da.

Mixel Xurio lapurtera klasikoaren epigonotzat har dezakegu. Halere, talde bereko hainbat obra bezala, ez da bereziki aztertu, ez eta kritikoki editatu ere. Salbuespen gisa, azkenaldian Urgellek (inprimategian) Xurioren itzulpenaren iturriak arakatu izana aipa dezakegu.

Gainera, Salaberri Muñoak (2007: 303) agerian jarri duen bezala, gure klasikoen azterketaz hitz egiteko orduan eskuzko inprentaren garaiko lanen berezitasunei garrantzi gutxi eman zaie. Ulibarriren (2009: 861-862) hitzak gurera ekarriz, badirudi XIX. mendeko euskaltzaleen lanekin egin ahal den guztia egina dela, hau da, liburuei buruzko datu historikoak biltzeko garaian, Vinson edo Urkixo bezalakoek egindako lana nahikoa dela. Hala, bibliografia materiala gurean oraindik behar bezala garatu gabeko ikerlerroa dela esaten du. Izan ere, azterketa filologikoan testua ondo eza-gutzeaz gainera, haren testuingurua (zentzurik zabalenean) eta eskuzko inprentaren garaiko prozesuak ere sakonki landu behar dira, aipatutako bi ikertzaileek, besteak beste, beren lanekin ederki erakutsi digutenez.

1.2. Oinarriak⁴

Hizkuntzaren historia ikertu nahi duenak bi alderdi hartu beharko ditu kontuan, Lakarrak (1997: 448) esan bezala. Alde batetik, corpusaren aberastasuna edo izaera, hau da, denboraren zein edukiaren aldetik nolakoa den testu-corpusa. Bestalde, corpus horren ezagutza edo egoera aintzakotzat hartu behar dugu, hau da, dauzkagun datuak zenbateraino bilatu, aurkitu, antolatu, eskura jarri eta aztertu diren. Hortaz, ez da nahikoa corpus bat izatearekin, corpusaren alderdi horiek ere menderatu behar dira.

Lakarraren ustetan, euskal corpusaren egoera ez da nahi genukeen bezain ona. Euskararen historiaz azkeneko bi mendeetan idatzi dena kontuan hartuta, saio gehiago egin dira euskararen etorkiez, euskarari berari buruzkoak baino (1997: 448). Gauza bera dakusagu euskal testuetan erabili izan den grafiaren historian, eta hau berau aztertzeke lanabesen garapen mailan. Hori gutxi ez balitz, egin diren zenbait «edizio kritiko» ez dira ganoraz egindako lanak. Esate baterako, Luis Mari Mujikak (Euskaltzaindia, 1986) argitaratutako Prai Bartolomereren *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (1816) liburuarena, edota Patri Urkizuk (2004) Lazarragaren eskuizkribua ezagutzera eman zenean argitaratutakoa. Filologia irizpideetan oinarri hartu gabeko lan horiek hizkuntzaren historiaren ezagutzan oztupoak baino ez dira.

Hala ere, egia da azken urteotan hobekuntza nabarmenak ere egin direla. Oro har, lan orokor gutxi baina ganorazkoak egin dira; esaterako, Hualde, Lakarra eta Trasken antolatutako *Towards a history of the Basque language* artikulua bilduma (1995), Trasken *The history of Basque* (1997), nahiz eta gaizki-ulertu eta hutsune zenbait izan, eta Martínez-Aretaren *Basque and Proto-Basque* (2013). Kanpo eta barne historia uztartzen dituen ezin utzizko lana da *Euskararen historia* liburua ere, Igartua, Gorrotxategi eta Lakarraren eskutik 2018an argitaratua. Datuak eskuratzen eta sistematizatzen ere aurrerapen handiak egin dira, Gorrotxategiren tesia (1984)

⁴ Urgell (prestatzen) lanean oinarritu gara atal honen edukia lantzeko.

kasu, akitanierazko corpusaren bildumarik osoena, edota Eusko Ikaskuntzak bultzatutako *Fuentes documentales medievales del País Vasco* bilduma (1982tik aurrera).

Bibliografiaren alorrean, corpusen bilketa eta digitalizazioaren egoera nahikotxo hobetu da, *Orotariko euskal hiztegia* (1987-2005), *Euskal Klasikoen Corpora* (EKC; lehenago *Corpus Arakatzaila*, 2007) edota hainbat liburutegik eskainitako datuei esker. Izan ere, liburutegien alorrean egindako lan gehiena liburuzain eta artxibozainek egin dute. Funtsen katalogazio onaren eta sarean ipintzearen ondorioz, lekukotasunen aurkitzea erraztu digu; esaterako, lan hau egiteko orduan. Hala ere, badira katalogatu gabeko funtsak oraindik ere. Urgellen arabera (prestatzen), sistematizazioan ez dugu ezer askorik aurreratu Vinsonez gero (1891-1898). Tarteko saioak ere egin dira, Altzibarren (1990b, 1991a, 1992a), Atutxaren (1999, 2001, 2002, 2008, 2011) edota Etxebarriaren (2005) lanak kasu (denak *ap.* Urgell 2013: 548).

Arestian aipaturikoa kontuan harturik, lan honen helburu orokorra azterketa filologikoa da, bi adarretan oinarrituta: alde batetik, bibliografia sistematikoan eta, bestetik, testu kritikan. Bibliografia sistematikoa testuen eta haien era ezberdinetako kopia edo erreprodukzioen bilketa eta zerrendatze lanean oinarritzen denez, Xurioren *Imitacionearen* edizioak bildu ditugu, ostean aleen konparaketa egiteko: leku eta garai hartako euskararen ezagutzan aurrerapausoak egiteko baldintzak sortzea da xedea, etorkizuneko edizioak elikatzeke asmoz. Helburu zehatzak hurrengo atalean zehaztuko ditugu.

1.3. Metodologia eta helburuak

Atutxak Etxeberri Ziburukoaren obrez egin zuen lanean (2008) bezala, gu ere Blecuak (1983: 231-240) bere eskuliburuan azaltzen duen filologiaren metodologian oinarrituko gara. Autoreak edizio kritikoan bi faseez dihardu: lehen materialen arteko lotura edo filiazioa zehazten duen fasea da, eta bigarrena erabakitze-fasea, irakurleei testu kritiko bat ematea helburu duena. Lehenengo faseari *recensio* deritzo, bigarrenari *constitutio textus*. Gure lana lehenengo fase edo *recensiora* mugatuko da (§ 2), Xurioren liburuaren azterketan lehenengo pausoak egitera, lan askoz zabalagoa behar genukeelako obraren edizio kritiko bat egiteko. Lehenengo fase hau, *recensioa*, lau ataletan banatzen da: a) *fontes criticae*, edo materialen bilketa eta analisi historikoa; b) *collatio codicum*, hau da, testigantza guztien erkaketa, aldaerak zehazteko asmoz (*lectiones variae*); c) aldaeren *examinatio* eta *selectioa*, eta d) *constitutio stemmatis codicum*, ahal bada.

Fontes criticae urratsean (§ 2.1), hautatu ditugun liburutegietan aurkitu ditugun Xurioren *Jesu-Christoren Imitacionearen* edizioen ale digitalizatu guztiak bildu ditugu. Liburuaren argitalpen ugariak direla eta, gure lanean XVIII. mendeko edizioak bakarrik izanen ditugu hizpide. Bibliografia materialeko lehenengo lan handia Julien Vinsonek (1891-1898) egin zuen, eta lan horretan oinarrituko gara materialen bilketa eta analisi egiteko (ikus § 1.3.1). Atal honetan kontsultagarri izan ditugun liburutegiak aipatuko ditugu eta lortutako aleen lehenbiziko sailkatze bat proposatuko dugu.

Bigarrenik, *collatio codicum* atala dugu (§ 2.2), non edizioen arteko erkaketa egin dugun. Atutxaren arabera (2008: 6), edizio kritiko zorrotz batek norberak lekukotza guztiak erkatzea eskatzen du, nahiz eta aurretik azterketa edo sailkatze gehiago egon. Hortaz, testigantzen zuzeneko erkaketa hasierako eginbehartzat jo dugu, au-

rreko lanen akats berberak errepikatzeko arriskua saihesteko. Honen adibide bat Atutzak egindako lanean bertan ikus dezakegu (2008: 6-7): Etxeberri Ziburukoaren *Noelacen* edizioen arteko erkaketa egiten ari zela, edizio bereko bi aletan aldeak sumatu zituen. Teorian 1697ko edizioaren bi ale berdinen aurrean zegoen (Vinsonek 15c gisa katalogaturikoak), baina bi aleak edizio ezberdinetakoak zirela ohartu zen, eta, beraz, katalogatu gabeko edizio bat aurkitu berri zuela. Horrenbestez, Vinsonek aipatzen duena betetzen dela egiaztatzeko, lortu ditugun edizioen deskribapena egingo dugu.

Horretarako, edizioen deskribapenerako, Gaskellek (1999: 391-452) bibliografia analitikorako aipatzen dituen teknikak baliatuko ditugu. Autore honek zenbait puntu garatzea proposatzen du: hasteko, azalaren transkripzioa, non edizioaren identifikazioa egiten den; bigarrenik, liburuaren formatuaren eta egituraren deskribapena eta orrialde kopuruaren zenbakitzea; hirugarrenik, deskribapen teknikoak, hala nola tipografia, papera eta tartekatutako irudi-orriak; laugarrenik, liburuaren edukiari buruzko xehetasunak eta, azkenik, liburuaren historiari buruzko beste edozein informazio. Bibliografia analitikoak normalean bost atal horien inguruko berriak biltzen dituen arren, gure kasuan atal bakoitzari emango zaion garrantzia desberdina izango da. Egiazki, gure interes nagusia testuan dago, ez inprimatzaile honen edo haren lana denetz frogatzen. Hortaz, lehenengo eta bigarren puntuak bakarrik garatuko ditugu esku artean ditugun edizioen erkaketa egin ahal izateko; aldiz, paperean edo tipografian ez dugu arreta berezirik jarriko.

Hirugarren atala *examinatio* eta *selectio* izanen da (§ 2.3). Aleen erkaketa eginez edizioen arteko filiazioa argitzea da helburua. Filologiak agintzen duen bezala, edizioz edizio gertatzen diren akats bateratzaileetan oinarrituko gara, bi lekukotasun edo gehiagok modu independentean egin ezin izan dituzten aldaketak kontuan hartuz. Gainera, erkaketa honek denborarekin hizkuntza irizpideetan aldaketak egon ote ziren jakiten lagunduko digu. XVIII. mendeko edizio guztien bi kapitulu jorratuko ditugu, atal bakar bateko lagin luze bat erabili beharrean. Izan ere, aurreikusi dezakegu itzulpena ez dela berdina izango hasierako eta bukaerako ataletan, zaila baita hasi eta buka berdin jokatzeko, are gehiago halako denbora luzea eskatzen duten lanetan. Alde batetik, lehenabiziko liburuaren 1. kapituluak eta, bestetik, laugarren liburuaren 7. kapituluak ikuskatuko ditugu, bada, edizio guztietan, agian edizioetan aurrera egin ahala zuzendutako akatsek edota berriki egindakoek datu interesgarriren bat emango digutelakoan. Ezberdintasunen deskribapena egiteko, Salaberri Muñoak (2007) erabiltzen duen eredu baliatuko dugu.

1.3.1. *Vinsonen lana: Imitacionearen edizioak*

Xurioren obraren edizioak aztertzeko, Vinsonen deskribapen bibliografikoa (1891-1898) ezin utzizkoa dugu, Urkixoren oharrekin batera. Vinsonek berak ikusitako Xurioren liburuaren edizioak bildu zituen 49. zenbakian, eta horien deskribapen bibliografikoa egin zuen. Sailkatze hori gure lanaren abiapuntutzat hartu dugu.

Vinsonek bederatzi edizio seinatu zituen: 49a (1720, Bordele), 49b (1720, Bordele), 49c (1760, Baiona), 49d (1769, Baiona), 49e (1788, Baiona), 49f (1825, Tolosa), 49g (1850, Tolosa), 49h (1855, Baiona) eta 49i (1872, Baiona). Guk XVIII. mendeko edizioekin bakarrik lan egingen dugu: beraz, lehenengo bostekin.

1872. urteko ediziotik aurrera, ez da argitalpen gehiago egon. Lafittek (1931: 62) atal bat hautatu zuen bere Loretegian, eta 1978. urtean Hordago argitaletxeak faksimilea argitaratu zuen, 1788. urteko edizioaren erreproduktzioa. Azkeneko lan horretan oinarritua dago, ostera, *Klasikoen Gordailuan* online ipini den edizioa, grafia gaurkotuan.

2. *Recensio*

2.1. *Fontes criticae: bilketa eta sailkapena*

Vinsonen adierazitako XVIII. mendeko bost edizioen ale digitalizatuak biltzeko, hurrengo liburutegi digitalak zein funts digitalen bilduma handiak dituzten liburutegiak hartu ditut kontuan: Koldo Mitxelena Kulturunea,⁵ Bizkaiko Foru Aldundia,⁶ Sancho el Sabio Fundazioa,⁷ Nafarroako Unibertsitate Publikoaren liburutegia,⁸ *Binadi* Nafarroako Liburutegi Digitala,⁹ Eusko Jaurlaritzaren *Liburuklik*,¹⁰ Euskal Kultur Erakundearen *Bilketa*,¹¹ Frantziako Liburutegi Nazionalaren *Gallica*¹² eta Espainiako Liburutegi Nazionalaren *Hispanica* web-atariak.¹³

Bilaketan «Chourio» autorearen izena erabili da, eta *Jesu-Christoren Imitacionea* izenburuarekin XVIII. mendean argitaratutako aleak hautatu dira. Hala, bada, aipatutako bederatzi bildumetara eta «Chourio» bidezko bilaketara mugatu da gure ikerketa. Hortaz, ez dakigu edizio bakoitzeko zenbat ale digitalizaturik dauden munduan, eta are gutxiago zenbat ale existitzen diren. Honek esan nahi du, etorkizuneko ikerketa lerro moduan, digitalizaturik dauden alez gain digitalizaturik ez daudenak ikertzeak lan honetan aterako ditugun ondorioak alda litzakeela.

Bilaketaren emaitzak 3. eranskinean atxikitako taulan daude ikusgai, hala digitalizaturikoak nola digitalizatu gabekoak. Guztira 14 ale digitalizatu bildu ditugu: 1720. urteko edizioetatik lau ale (Vinson 49a edo 49b?), 1760ko ediziotik bi (Vinson 49c), 1769kotik lau (Vinson 49d) eta 1788kotik lau (Vinson 49e).

Bilduma guztietan gutxienez ale bat topatu dugu, *Hispanica* eta *Binadin* izan ezik. Aleen laburdurak ezartzeko argitalpen urtea eta gordailuaren izenaren sigla erabili ditugu. Funts propioak dituzten liburutegien kasuan liburutegiaren beraren izena hautatu dugu: KMK (Koldo Mitxelena Kulturunea), BFA (Bizkaiko Foru Aldundia), SSF (Sancho el Sabio Fundazioa), NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa). Web-atariaren bidez topatutako alei jatorrizko liburutegiaren sigla ezarri diogu: *Liburukliken* bidez Eusko Legebiltzarraren Ondareko (ELO) bi ale aurkitu ditugu, *Bilketaren*

⁵ <https://kmk.gipuzkoa.eus/eu/katalogoa>.

⁶ <https://bibliotecaforal.bizkaia.eus>.

⁷ <https://www.sanchoelsabio.eus>.

⁸ <http://www.unavarra.es/biblioteca>.

⁹ <https://binadi.navarra.es>.

¹⁰ <http://www.liburuklik.euskadi.eus>. Jaurlaritzak berriki *Euskariana* webgune berrian barneratu ditu hango edukiak: <https://www.euskariana.euskadi.eus>.

¹¹ <https://www.bilketa.eus>.

¹² <https://gallica.bnf.fr>.

¹³ <https://www.bne.es/es/catalogos/biblioteca-digital-hispanica>.

bidez Bibliothèque Médiathèque Bayonne (BMB) liburutegiko ale bat eta *Gallicaren* bitartez Bibliothèque Nationale de France (BNF) liburutegiko bi ale.

Hortaz, behin-behinean honela izendatu ditugu bildutako aleak:

1. taula

Landuko diren aleen behin-behineko izendapenak

1720ko aleak	1760ko aleak	1769ko aleak	1788ko aleak
1720-BFA	1760-ELO	1769-BFA	1788-BNF
1720-BMB	1760-KMK	1769-BNF	1788-ELO
1720-NUP		1769-KMK	1788-KMK
1720-SSF		1769-SSF	1788-SSF

2.2. *Collatio codicum*: edizioen deskribapena eta erkaketa

2.2.1. Azalen alderaketa

2.2.1.1. 1720ko edizioa

Vinsonek azalean 1720ko data daramaten bi edizio aurkitu zituen: *princepsa* eta, aztertu ondoren, beranduago egindako *contrafaçon* edo kontrafaktutzat jo zuena. Azalak erkaturik, testuko ezberdintasun nabariak antzeman ditugu. Lehenengoaren testua:

JESUS-CHRISTOREN | IMITACIONEA. | M. CHOURIO *Donibaneco Erretorac* | *efcararat itçulia*. | BORDELEN, | GUILLAME BOUDE' BOE' Imprimatçaille, eta Liburu | Mercataria baitan, Jondoni Jacubaco carrican, | Mercatu handiaren aldean. | - | M. DCCXX. | *PERMISSIONEAREQVIN*.

Bigarrenarena:

JESUS-CHRISTOREN IMITACIONEA · | M. CHOURIO *Donibaneco Erretorac* | *efcararat itçulia*. | BORDELEN, | GUILLAME BOUDE' BOE' Imprimatçaille, eta Liburu | Mercataria baitan, Jondoni Jacubaco carrican, | Mercatu handiaren aldean | - | M. DCC. XX. | *PERMISSIONEAREQVIN*.

Azal hauetan hurrengo informazioa agertzen zaigu: liburuaren izenburua, autorea, honen kargua, zein hizkuntzataraz itzulia izan den, non eta zein inprimategitan argitaratu den, zein kaletan, argitaratze urtea eta baimena. Lehenengo azalaren testuak Vinsonek 49a izendapenarekin deskribatzen duen azalarekin bat egiten du, eta bigarrenak, 49b izendaturiko edizioarekin.

Alde nabarmenak daude bien artean. Lehenengo testuan, «IMITACIONEA» hitzaren ondoren ohiko puntua dago; bigarrenean, ordea, altuera erdiko puntua. Gainera, lehenengoak argitaratze urtea «M.DCCXX» formatuan ematen digu eta bigarrenak, aldiz, «M.DCC.XX.» formatuan. Bukatzeko, «PERMISSIONEAREQVIN» lehenengoan *s* bakarrarekin idatzi da, eta bigarrenean «PERMISSIONEAREQVIN» *ss* bikoitzarekin. Vinsonek «PERMISSIONEAREQVIN», edizio biak *ss* grafiarekin dakartza.

Testuaz gaindi, azalak ezberdinak egiten dituen bigarren faktore bat dago: tako xilografikoz egindako grabatuak. Ulibarrik (2009) *Viva Jesus* dotrina datatzeko erabili zuen osagai honi arreta jarriko diogu jarraian.

Lehenengoaren grabatuan aingeru bat oparotasunaren bi adarren artean ageri zaigu:



1. irudia

Aingerua oparotasunaren bi adarren artean

Ostera, bigarreanean mensula bat ageri zaigu, gainean loreontziak dituena, apaingarriz inguraturik:




2. irudia

Mensula loreontzi eta apaingarriekin


Arestian aipatutakoa kontuan harturik, lehen begiratuan urte bereko bi edizio ezberdin direla ondoriozta dezakegu. Deskribatutako lehenengo azalarekin bat egiten duten aleei 1720A izendapena ezarriko diegu, eta bigarrenarekin bat egiten dutenei 1720B, Vinsonen izendapenari jarraikiz. Lehenengoaren baitan ale bakarra bildu dugu: 1720A-BFA. Bigarrenaren baitan bi: 1720B-NUP eta 1720B-SSF. Laugarren aleak (1720-BMB) azala galdu du, *Imitazione*aren lehenbiziko liburutik aurrerako orrialdeak bakarrik gorde baitira. Bietako zeinen alea den jakin nahirik, azalaz gaindiko elementuak 1720A eta 1720B edizioen gainerako aleekin konparatu ditugu. Elementu grafiko bat baino gehiago balia genezake 1720B edizioaren alea dela esateko, baina batekin aski izango da: har dezagun lehenbiziko liburuaren 1. atalaren goiko parteko grabatua (i. or.) erkatzen ari garen aleetan:




3. irudia
1720A-BFA



4. irudia
1720B-NUP



5. irudia
1720B-SSF



6. irudia
Azalik gabeko alea (1720B-BMB)

Nabarmena denez, 1720B edizioaren irudi bera dugu azalik gabeko alean (1720B-BMB). Hori bakarrik ez, edizio horren ale guztiek egur zatiaren higitze marka berak edo bertsuak dituztela ikus dezakegu: goiko lerro lodiak bi koska berdintsu ditu erdialdera, eta higadura markak eskuinaldeko izkinaren aldean. Higadura marka hauek gorritz inguraturiko beste hainbeste xehetasunetan ere antzeman ditzakegu: hostoetan, loreetan, beheko lerroan... Tako xilografiko bera erabili zela ondoriozta dezakegu, kronologikoki momentu bertsuan. 1720. urteko edizioaren azalik gabeko ale honi 1720B-BMB izendapena ezarriko diogu, bada.

Hortaz, Vinsonek aipatutako edizio bakoitzetik behintzat liburu bana biltzea lortu dugu, hurrengo taulan agerian denez:

2. taula

1720ko edizioen aleen izendapena

1720ko lehenengo edizioa	1720ko bigarren edizioa
1720A-BFA	1720B-BMB
	1720B-NUP
	1720B-SSF

Vinsonek bigarren edizioari buruz zenbait datu garrantzitsu ematen dizkigu. Alde batetik, edizio hau aurrekoa baino askoz traketsagoa dela (edizioen arteko konparaketaz, ikus § 2.3) eta, haren ustez, liteekena da 1720. eta 1750. urteen artean egindako *contrefaçona* izatea, Baionan inprimatutakoa (ez Bordelen). *Contrefaçona*k garaiko faltsutzeak ziren, lehenengo edizioaren arrakasta probestu nahi zutenak, legezko baimenik gabe. Garai hartan oso ohikoak ziren. Bestalde, papera eta tipografia Axularren bigarren edizioaren oso antzekoak direla ere badio Vinsonek, hots, bere ustetan *contrafaçon* den beste edizio batena.

2.2.1.2. 1760ko edizioa

Batu ditugun bi aleetan (1760-ELO, 1760-KMK), azalaren deskribapena bat eta bera da, ez dugu bataren eta bestearen arteko ezberdintasunik antzematen:

JESU-CHRISTOREN | *IMITACIONEA*, | M. CHOURIO Donibaneco Erretorac, | *Escararat itçulia*. | EMENDATUA | Meçaz eta Igandetaco Beçperez. | = | *Hunen Precioa da 45 f.* | = | (apaingarri batzuk) | *BAYONAN*, | PAUL FAUVET, Erregueren Liburu-Eguille eta | Saltçaille baitan, Bortz-Cantoiñetan aldean. | = | M. DCC. LX | *PERMISSIONEAREQUIN*.

Ageri zaigun informazioa hurrengo da: liburuaren izenburua, autoreia, honen kargua, zein hizkuntzatar itzulia izan den, gehitutako atalak, prezioa, non eta zein inprimategitan inprimatu zen, kalea, argitaratze urtea eta baimena. Vinsonen 49c edizioaren deskribapenarekin bat egiten du.

2.2.1.3. 1769ko edizioa

Kasu honetan lau ale bildu ditugu: 1769-BFA, 1769-BNF, 1769-KMK eta 1769-SSF. Azala galdu ez duten aleetan ikus dezakegu azaleko testua bera dela:

JESU-CHRISTOREN | *IMITACIONEA*. | M. CHOURIO Donibaneco Erretorac, | *Escararat itçulia*. | EMENDATUA | Meçaz eta Igandetaco Beçperez. | = | *Hunen Precioa da 45 f.* | = | (apaingarri bat) | *BAYONAN*, | FAUVET-DUHART, Erregueren Liburu- | Eguille eta Saltçaille baitan, Apou- | maiouco carrican. | = | M. DCC. LXIX. | *PERMISSIONEAREQUIN*.

Informazioa hurrengo da: liburuaren izenburua, autorea, honen kargua, zein hizkuntzatarata itzulia izan den, gehitutako atalak, prezioa, non eta zein inprimategitan inprimatu zen, kalea, argitaratze urtea eta baimena. Vinsonen 49d edizioaren deskribapenarekin bat dator.

Kasu honetan ere, azalik gabeko ale bat dugu (1769-BNF), bakarrik XIX. orrialde-tik aurrerako orriak gorde dituenak. Nola dakigu edizio bereko alea dela, ordea? Aurretik 1720. urteko bigarren edizioan erabili dugun metodo bera erabiliko dugu hau egiaztatzeko. Kapitulu eta orrialde kopuru berak dituela kontuan harturik, konpara ditzagun zehaztasunak. Esate baterako, «Lehenbico liburu» hasten den orrialdeko grabatuak (25. orrialdea):



7. irudia
1769-KMK



8. irudia
1769-SSF



9. irudia
1769-BFA



10. irudia
Azalik gabeko alea

Hortaz, agerikoa da irudi beraren aurrean gaudela. Gainera, 1720B edizioan bezalatsu, tako xilografikoaren higadura marka berak ikus ditzakegu grabatuetan.

2.2.1.4. 1788ko edizioa

Bildu ditugun lau aleetan azalak hurrengo testua du:

JESU-CHRISTOREN | IMITACIONEA, | M. CHOURIO Donibaneco
Erretorac, | *Escararat itçulia*. | EMENDATUA | Meçaz eta Igandetaco Beşperez. |
EMENDATUA othoitz eta pratica batez Ca- | pitulu baccoincharen akhabançan,
çoinac | itçuliac içatu baitire Franceşfetec Eşcararat | Bayonaco Dioceşfacó Juan

Aphez Mij- | Jioner batez. | (elizaren objektuekin egindako marrazkia) | BAYONAN,
| TREBOS, Liburu. Saltçaille baitan, | Apoumaiouco carrican. | = | M. DCC.
LXXXVIII. | *PERMISSIONEAREQUIN*.

Edukiari dagokionez, hurrengo informazioa ematen digu: liburuaren izenburua, autorea eta kargua, zein hizkuntzatarara itzuli den, kapitulu bakoitzaren bukaeran frantsetik euskarara itzulitako otoitzak emendatu direla, non inprimatu den kalea, argitaratze urtea eta baimena. Lehenbizikoz emendakinen autorearen berri ematen da, nahiz eta izenik ez: «Bayonaco Diocessaco Juan Aphez Missioner batez». Orokorrean Vinsonen 49e edizioaren azalaren deskribapenarekin bat dator, letra batean izan ezik: «baccoincharen» hitzaren lehenbiziko letra B larriz transkribatu du Vinsonek, ohar-kabea nonbait, letra xehea izan beharrean.

2.2.2. *Tamaina eta atalak*

Vinsonen deskribapen bibliografikoa gogoan izanik, aleen tamainari eta hauen baitako atalei helduko diegu. Edizio bakoitzaren hasierako edo atariko orrialdeak, edukiari dagozkionak eta bukaerako eranskinenak zenbatuko ditugu. Atal bakoitzaren orrialde kopurua taulatan adieraziko dugu, eta taulen ondoren deskribapen zehatzago bat garatuko da. Gure analisia Vinsonen deskribapenarekin erkatuko dugu, baita Urkixorena-ekin ere holakorik dagoenean. Gehigarri moduan, Vinsonen ausaz hautaturiko zenbait esaldiz egina zituen oharrak gure aletan berdin agertzen diren etz egiaztatuko dugu.

2.2.2.1. 1720A

3. taula

1720A edizioaren orrialde banaketa

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1720A-BFA	4 or.	426 or.	12 or.

— Atarikoa: 4 orrialde, zenbakirik ez.

- [1-2]: [azala eta ondoren eskuz idatzitako anotazioak «Joseph Villa-Realgorrena...»].
- [3-4]: APROBACIONEA [Haristeguy Donibaneko erretorea, J. Darreche Ziburuko erretorea, Dolhabide Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore Duhalde dira sinatzaileak].

— Edukia: 426 orrialde (1-426).

- 1-90: LEHENBICICO LIBURUA.
- 91-139: BIGARREN LIBURUA.
- 140-347: HIRURGARREN LIBURUA.
- 348-426: LAUGARREN LIBURUA.

— Eranskina: 12 orrialde, zenbakirik ez.

- CAPITULUEN THAULA.

Vinsonek tamainari buruz esandakoa betetzen da. Oharrei dagokienez, Vinsonek dio 151. orrialdearen lehenengo lerroa «eta enga-» batekin bukatzen dela. Ez da hala gertatzen gure alean, «eta en-» bukaera baitauka, Urkixok deskribatu zuen aleak bezala. Gainerako oharrei dagokienez, guztietan bat datoz.

2.2.2.2. 1720B

4. taula

1720B edizioaren orrialde banaketa

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1720B-BMB	Atarikoa faltan	426 or.	8 or. (4 faltan)
1720B-NUP	4 or.	426 + 11 or. ¹⁴	12 or.
1720B-SSF	4 or.	426 or.	12 or.

— Atarikoa: 4 orrialde, zebakirik ez.

- [1-2]: [azala eta orrialde bat hutsik].
- [3-4]: APROBACIONEA [Haristeguy Donibaneko erretorea, J. Darreche Ziburuko erretorea, Dolhabide Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore Duhalde dira sinatzaileak].

— Edukia: 426 orrialde (1-426).

- 1-90: LEHENBICICO LIBURUA.
- 91-139: BIGARREN LIBURUA.
- 140-347: HIRURGARREN LIBURUA.
- 348-426: LAUGARREN LIBURUA.

— Eranskina: 12 orrialde, zebakirik ez.

- CAPITULUEN THAULA.

Bistan da 1720A edizioaren atal berak errespetatu direla. Gainera, Vinsonek bere bibliografian deskribatutako tamaina eta atalak gurearekin bat datoz.

Bi edizioen arteko ezberdintasunetan ere bat datoz Vinsonen eta gure deskribapenak, zehaztasun batean izan ezik: gure aletan 151. orrialdearen lehenengo lerroak «eta enga-» bukaera dauka, eta ez «eta en-», Vinsonek dioenez. Beraz, badirudi 1720A eta 1720Bko datuak bata bestearekin trukatu zituela oharkabeen.

¹⁴ Ale honetan 92-103 bitarteko orrialdeak bi bider ageri dira erabili dugun bertsio elektronikoan. 103. orrialdera iristerakoan, 92. orrialdetik hasten da berriz. Hortaz, 11 orrialde errepikaturik daude. Orrion argazkietan urradura marka berak ikusten ditugu; hortaz, ezin pentsa alean orrialdeak birritan direnik, birritan eskaneaturikoak baizik.

2.2.2.3. 1760

5. taula

1760. urteko edizioaren orrialde banaketa

	Atariko	Edukia	Eranskina
1760-ELO	22 or.	356 or.	10 or.
1760-KMK	22 or.	356 or.	10 or.

— Atariko: 22 orrialde (i-xxii). Bi orrialde hutsik.

- i-ii: [azala eta orrialde bat hutsik].
- iii-xii: MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.
- xiii-xviii: IGANDETACO BESPËRETAN.
- xviii-xxi: IGANDETACO COMPLETETAN.
- xxi-xxii: CANTICOA.
- [Bi orrialde hutsik, zenbakirik gabe].

— Edukia: 356 orrialde (1-356).

- 1-2: APROBACIONEA [Haristeguy Donibaneko erretorea, J. Darreche Ziburuko erretorea, Dolhabide Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore Duhalde sinatzaileak].
- 3-76: LEHENBICICO LIBURUA.
- 77-117: BI-GARREN LIBURUA.
- 118-288: HIRURGARREN LIBURUA.
- 289-354: LAUGARREN LIBURUA.
- 355: GAUDEAC.
- 356: IONDONI LEON OTHOITÇA.

— Eranskina: 8 orrialde, zenbakirik ez.

- CAPITULUEN THAULA.

Edizio honetan lau atal gehitu dira hasieran: «Meça sainduço othoitçac», «Igan-detaco besperetan», «Igan-detaco completetan» eta «Canticoa», zenbaki erromata-rrez. «Aprobacionea», aldiz, liburuaren parte bilakatu dute, berarekin hasten baita, hasi ere, ohiko zenbakuntza arabiarra, aurreko edizioan oniritziak zenbaki erromata-rrez bazeuden ere. Bukaerako partean, «Gau-deac» eta «Iondoni Leon othoitça» atalak ere gehitu dira, liburuan zehar erabilitako zenbaki arabiarrekin jarraituz. «Capituluen thaula» aurreko edizioetan bezala utzi zuten, zenbakirik gabe. Azalean emendakinen autorea Baionako misiolari bat izan zela esaten da, baina ez nor den zehazki. Vinso-nek bere bibliografian deskribatutakoa gurearekin bat dator.

2.2.2.4. 1769

6. taula

1769. urteko edizioaren orrialde banaketa

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1769-BFA	24 or.	353 or.	7 or.
1769-BNF	5 or. ¹⁵	353 or.	7 or.
1769-KMK	24 or.	353 or.	7 or.
1769-SSF	24 or.	353 or.	7 or.

— Atarikoa: 24 orrialde (i-xxiv).

- [i-ii]: [azala eta orrialde bat hutsik].
- iii-xii: MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.
- xiii-xviii: IGANDETACO BESPETAN.
- xviii-xxi: IGANDETACO COMPLETETAN.
- xxi-xxii: CANTICOA.
- xxiii-xxiv: APROBACIONEA [Haristeguy Donibaneke erretorea, J. Darreche Ziburuko erretorea, Dolhabide Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore Duhalde sinatzaile].

— Edukia: 353 orrialde (25-377).

- 25-98: LEHENBICICO LIBURUA.
- 99-139: BI-GARREN LIBURUA.
- 140-310: HIRURGARREN LIBURUA.
- 311-376: LAUGARREN LIBURUA.
- 376-377: GAUDEAC.
- 377: IONDONI LEON OTHOITÇA.

— Eranskina: 7 orrialde, zenbakirik ez.

- CAPITULUEN THAULA.

Edizio honetan 1760. urteko edizioaren atal berak gorde dira. Hortaz, itxuraz 1769. urteko edizioa 1760koaren gainean egin zen. Hala ere, zenbakitzea ez zen berdin gorde: «Aprobacionea» atariko edukiaren baitan kokatu zen berriz, zenbaki erro-matarrez. Bukaerako partea aurreko ediziokoa bezalakoa da: emendatutako bi atalak edukiaren baitan daude. Edizio honetan ere ez da aipatzen emendakinak egin zituenaren identitatea.

Vinsonek deskribatutakoa gurearekin bat dator, eta lerrokatzeari buruz aipatu zituenak ere betetzen dira: 364. orrialdeak 1760. urteko edizioko 342. orrialdeak baino lerro bat gehiago du; 365. orrialdeak 1760ko 343. orrialdeak baino bi gehiago; 366.ak 1760ko 344.ak baino hiru gehiago, 367. eta 368.ak 1760ko 345. eta 346.ak baino lau gehiago, etab.

¹⁵ Liburuaren lehenengo 18 orrialdeak falta dira. xix. orrialdetik xxiv. orrialdetako edukia gorde da, aldiz.

2.2.2.5. 1788

7. taula

1788. urteko edizioaren orrialde banaketa

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1788-BNF	24 or.	473 or.	8 or.
1788-ELO	24 or.	473 or.	8 or.
1788-KMK	24 or.	473 or.	8 or.
1788-SSF	24 or.	473 or.	8 or.

— Atarikoa: 24 orrialde (i-xxiv). Orrialde bat hutsik bukaeran.

- i-ii: [azala eta irudia].
- iii-xii: MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.
- xiii-xviii: IGANDETACO BESPETAN.
- xviii-xxi: IGANDETACO COMPLETETAN.
- xxi-xxii: CANTICOA.
- xxiii-xxiv: APROBACIONEA [Haristeguy Donibaneko erretorea, J. Darreche Ziburuko erretorea, Dolhabide Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore Duhalde sinatzaile].
- [Orrialde bat hutsik: zenbakirik gabe].

— Edukia: 473 orrialde (26-498).

- 26: [irudia].
- 27-123: LEHENBICICO LIBURUA.
- 124: [irudia].
- 125-179: BI-GARREN LIBURUA.
- 180: [irudia].
- 181-409: HIRURGARREN LIBURUA.
- 410: [irudia].
- 411-495: LAUGARREN LIBURUA.
- 496: AUTRE APROBATION [D'Iturbide, Vic. Gen.].
- 497: GAUDEAC.
- 497-498: IONDONI LEON OTHOITÇA.

— Eranskina: 8 orrialde (499-507).

- 499-507: CAPITULUEN THAULA.

1788ko edizioan aurreko bietan atxikitako parteak ez ezik, pasarte berriak ere gehitu zituztela ikus daiteke. Gainera, 1769ko edizioan bezala, «Aprobacionea» atariko partean kokatu da. Horrenbestez, 1769ko edizioaren gainean egindakoa dela ondoriozta dezakegu. Atal berriei dagokienez, «Autre approbation» (Iturbide delarik sinatzailea) eta zenbait irudi berri nabarmendu ditzakegu. Bestalde, oraingoan bukaerako eranskinean topatu dugun «Capituluen thaula» zenbakiturik dago.

«Autre approbation» atal berrian informazio baliagarria ematen zaigu:

[M]ais cette traduction, depuis longtemps autorisée dans ce Diocèse, ne contenait point les Pratiques et les Prières qu'un auteur estimable a ajoutées depuis à la fin de chaque Chapitre. Monsieur Etcheberry, zélé Missionnaire, a cru qu'il serait très utile de les insérer dans la nouvelle impression qu'on va faire de l'ancienne traduction, & il les a aussi traduites en Basque. (496. or.)

Iturbidek oniritzi honetan agerian jartzen du aurreko edizioek ez zutela zenbait praktika eta otoiitzen itzulpena, eta oraingoan Etcheberry jaunak kapitulu bakoitzaren bukaeran erantsi dituela.¹⁶ Vinsonek datu interesgarriak ematen ditu bibliografiako 49f zerbakiaren (1891-1898: 163) Etcheberry jaunari buruz, alegia, Larresoroko seminarioaren zuzendaria izan zela, eta gero Uztaritzeko erretorea. F. Michel-en lanean (1857: 484) Etcheberry Uztaritzeko erretorea zela esaten da, eta 1788. urtea baino lehenago hil zela. Gogora dezagun emendakin berri hauen egilea liburuaren azalean aipatua dela, nahiz eta ez den haren izenik ematen: «Bayonaco Diocessaco Juan Aphez Missioner batez».

1788-SSF alea lagin moduan hartu dugu eta, baimenean aipatu bezala, «Cer eguin behar dut beraz?» eta «Othoitça» atalak ageri zaizkigu kapitulu gehienen bukaeran. IV. liburuaren IV, VI eta XVI. kapituluetan ez da bata ez bestea ageri; III. liburuaren XXVII, XXIX, eta XXXVI. kapituluetan ez da «Othoitça» atalik ageri; bai, ordea, «Cer eguin behar dut beraz?» atala. Vinsonek bere bibliografian deskribatutakoa gurearekin bat dator.

2.3. *Examinatio eta selectio*

Arestian aipatu bezala, testuaren erkaketari ekinen diogu edizioen arteko filiazio harremanak zeintzuk izan ziren jakiteko. Hala ere, orain arte edizioen atalen inguruan egindako azterketak nahiko informazio eman digu. Edizioz edizio pasarte berriak txertatu izanak arrastoak utzi ditu oinarritzat hartutako edizioaren eiteaz. Momentuz, badakigu lehenengo edizioa 1720A izan zela, Vinsonek 1720B edizioa kontrafaktutzat jo baitzuen. Bere ustez, 1720 eta 1750. urteen artean egin zen eta, euskaraz ipinita, «aurrekoa baino arreta gutxiagorekin inprimatua izan zen». Gainera, 1720B 1720Aren gainean egin zutela ondoriozta genezake, ez baititu 1760ko edo ondoko emendakinak barnebiltzen. 1760ko edizioa aurreko bi horietako batean oinarrituta dago, eta lehenengo emendakinak gehitzen zaizkio. 1769ko edizioa 1760kotik abiatuta egin zen, honetan txertatutako atalak izan badituelako. Azkenik, 1788. urteko edizioak emendakin berriak ditu, baina, orain arte dakiguna bakarrik jakinda, ezin baiezatu 1760ko edo 1769ko edizioan oinarrituz egin ote zen. Bada, edizioz edizio gertatu diren aldaketak azter ditzagun.

Konparazioa egiteko, lehendabiziko liburuako 1. kapitulu (1.1) eta laugarren liburuako 7. kapitulu (4.7) hautatu ditugu.

Hautatzerakoan hobeki gorde diren aleak lehenetsi ditugu. Lehendabiziko libururako, 1720A-BFA, 1720B-SSF, 1760-ELO, 1769-KMK eta 1788-KMK aleak era-

¹⁶ Urgellen arabera (a.a.), xvii. mendeko latinezko eta frantsesezko *Imitazioeak* ez zeukaten horrelakorik. Badirudi, beraz, geroko eransketak direla.

bili ditugu. Kapitulu honen erkaketaren emaitzak 1. eranskinean bilduta daude taula modura. Laugarren liburuko 7. kapituluaren alderaketa egiteko beste ale batzuk hautatu ditugu, aurretik erabilitako aleek arazoak erakutsi baitituzte kapitulu honetan: 1720B-SSF alean denborarekin ezabatutako atalak ikus ditzakegu, eta horren ordez 1720B-BMB alea erabiliko dugu; 1788-KMK alean orrialdeak moztuta eskaneatu ditzuzte, eta horren ordez 1788-SSF alea aukeratu dugu. Hortaz, hauek dira laugarren liburuaren konparaketa egiteko erabiliko ditugun aleak: 1720A-BFA, 1720B-BMB, 1760-ELO, 1769-KMK eta 1788-SSF. Erkaketa honen emaitzak 2. eranskinean bilduta daude taula modura.

Taulan aldaketa bakoitzari zenbaki bat eman diogu, eta zenbaki hori erabiliz aipatuko ditugu hemen.

1.1. kapituluan 19 aldaketa agertu dira, eta 4.7. kapituluan 35, aurreko laginean baino 16 gehiago.

Bildutako ezberdintasunak garbiak dira, eta lau motatan bana ditzakegu: hitz-banaketak, maiuskula eta minuskula txandakatzeak, grafia aldaketak eta puntuazio aldaketak.

2.3.1. Hitz-banaketak: hitzak bereizteko edo elkartzeko egiten diren aldaketak ditugu, artean zuriune bat txertatzen edo kentzen dutenean. Lau motatako hitz-banaketak aurkitu ditugu.

- Aditz nagusia, *behar* eta aditz laguntzailea bata bestetik banatzen direnean: 1.1. kapituluan *içanbeharda* → *içan behar da* (2) eta *behardu* → *behar du* (9) adibideak ditugu; 4.7. kapituluan ez dago horrelakorik.
- *Ez* partikula aditzetik banantzean, itxuraz *ba-* edo *bait-*en aurrean bakarrik: 1.1. kapituluan *ezbaitute* → *ez baitute* (8), *ezbaduçu* → *ez baduçu* (14); 4.7. kapituluan *ezpailaiteque* → *ez bailaiteque* (5).
- 1720A eta 1720B edizioetan *bat* zenbatzailea izenkiari lotuta zihoan, aurreko hitzarekin unitate foniko bat osatuko balu bezala. Ondoko edizioetan bitan banatzen da: 1.1. kapituluan *dohacabebat* → *dohacabe bat* (16), *handibat* → *handi bat* (17). 4.7. kapituluan adibiderik ez.
- Akatsen ondorioz gertatutako hitz banaketak ditugu. 1.1. kapituluan *nola* galdetzailea ondoko hitzari lotu zaio oharkabean: *nolapresuna* → *nola presuna* (12). 4.7. kapituluan, *ethorquiçunerat* → *ethorqui çunerat* (22).

Lehenengo hiru hitz-banaketa moten adibideak 1760ko edizioan egokitzen dira, eta hurrengo bi edizioek (1769. eta 1788. urtekoek) gorde ditzuzte. Aldaketa hauetako gehienek berariaz eginak dirudite, hitzak bildu eta bereizteko irizpide ezberdinen ondorioz. Hala ere, liburua sakonago aztertu beharko genuke hori egiaztatzeko.

Laugarren motako adibideak, aldiz, ez dirudi inolako irizpideren azpian eginak direnik. Esan bezala, *nolapresuna* → *nola presuna* (12) aldaketak akats zuzenketa dirudi: izan ere, 1720An eta 1720Bn elkartuta dago, baina 1760ko ediziotik aurrera banaturik. Halaber, uste dugu *ethorquiçunerat* → *ethorqui çunerat* (22) 1720Bko aldaketa *contrefaçon* edizioaren akats argia dela.

Hitz-batuketa bi ditugu 4.7. kapituluan: *utz çatçu* → *utsatçu* (24) eta *egin ahala* → *eginahala* (32). Lehenengoa 1760ko edizioan egokitu eta hurrengoetan

dirauren aldaketa da, baina lagin zabalago bat behar genuke berariaz egindakoa ote den bermatzeko. Litekeena da 1760ko edizioan aditzoina eta laguntzailea batzera-koan <ts> grafia oharkabean idatzi, eta ondorengo edizioetako tipografoek akriti-koki kopiatzea. Bigarrena 1788. urteko edizioan gauzatu zen, agian akats baten on-dorioz.

2.3.2. *Letra larri eta xeheak*: lehenik, minuskulatik maiuskulara aldatutako bi motatako hitzak ditugu. Alde batetik, zenbaitetan, errespetuzko hitzak hasierako le-tra larriz idatzi zituzten: 1.1. kapituluan *jaincoaren* → *Jaincoaren* (6), 1720B edi-zioan gauzatu eta hurrengoetan gorde da; 4.7. kapituluan *eliçaco* → *Eliçaco* (19), 1760ko edizioan gertatu eta gordeko dena. Bestetik, 1.1. kapituluan bi puntuen osteko hitzaren lehen letra maiuskulaz idatzi zuten 1760ko ediziotik aurrera: *be-guia* → *Beguia* (18). Edizio berean 4.7. kapituluan *APheçac* → *APHEÇAC* (1) alda-keta egitea erabaki zen, hurrengo edizioetan ere gorde zena. Kapituluaren lehenengo hitza larriz idatzirik dagoenez liburu osoan zehar, aldaketa baino gehiago zuzenketa dugu hau.

Bigarrenik, maiuskularen ordezkari minuskula ipinitako adibide bat daukagu: 1.1. kapituluan *Guciac* → *guciac* (1). Maiuskula erabiltzeko arrazoirik ez dago, ez puntuaziorik, ez hitzaren izaera berezirik. 1760ko edizioan egokitu eta hurrengoetan irauko duen aldaketa da.

2.3.3. *Grafia aldaketak*: bi taldetan banatu ditugu. Alde batetik, erraten zuzen-ketaren ondoriozkoak, hots, lehen ere okertzat har zitezkeen formen zuzenketa (§ 2.3.3.1). Bestetik, idazteko ohiturei edota hizkuntzaren berezko aldaketari zor ahal zaizkienak (§§ 2.3.3.2 eta 2.3.3.3, hurrenez hurren).

2.3.3.1. Nahi gabe sortutako akatsak gehienetan edizio bakar batean ger-tatu dira, eta gainerakoetan zuzenduta aurkitu ditugu. Honelakoak batez ere 1720B edizioan ikus ditzakegu: 1.1. kapituluan, *meditatcea* → *metitac a* (3), *Sainduec* → *Saieduec* (4), *berthute* → *berthutte* (11). Lehenengo forma zuzenak 1720A *princeps* edizioetakoak dira; bigarrenengoak aipatu berri dugun *contrefaçõn* edi-zioetakoak. 4.7. kapituluan ere baditugu 1720B edizioan soilik sortutako erratak: *ahal* → *hal* (4), *campoco* → *camgoco* (10), *chuchentceco* → *cuchhentceco* (21), *han-ditan* → *hantitan* (28) eta *eta* → *etai* (29). Hortaz, aski adibide dira 1720B edizio ez zaindua izan zela argudiatzeko, Vinsonek aurreratu zuenez. Hala ere, beste edi-zioaren batean bakarrik egindako erratak ere bildu ahal izan ditugu: 1760koan erga-tiboa ahaztu eta *launac* → *launa* (34) ageri da, eta 1788koan <z> eta <s> nahasi eta *bihotçaz* → *bihotças* (23).

Edizio batean baino gehiagotan errepikatzen diren erratak ere baditugu: 1.1. kapi-tuluko *choilqui* → *choilqui* (15) eta 4.7. kapituluko *fiñatceco* → *fiñatceco* (17). Biak 1720A eta 1720B edizioetan aurkitzen ditugu, baina 1760ko ediziotik aurrera zuzen-keta egiten da. Ez da batere arraroa 1720B bezalako edizio trakets batek 1720Ako erratak errepikatzea. Hala ere, elementu gehiago bildu nahi izan ditugu berariaz egin-dako zuzenketa izan zirela egiaztatzeko, eta ez edizio berriaren akatsak. Horretarako, Xuriok lehenengo edizioan oro har nola idazten zituen arakatuko dugu: *choilqui* eta *fiñatceco* formak agertzen zaizkigu lehenengo edizioetako gainerako agerraldietan? Hala balitz, ezingo genituzke aldaketa horiek akatsen zuzenketa gisa sailkatu.

Choilqui vs *choillqui* formei dagokienez, alde batetik, *choilqui* hirutan (3:16-17,¹⁷ 200:22, 375:7) eta *choil* behin (203:17) aurkitu ditugu; bestetik, *choillqui* lau alditan (*Aprobacionea*: 2, 211:7, 395:4, 401:18-19), *choill* beste lautan (8:12, 19:26, 100:7, 163:9), *choillez* bitan (15:13, 404:18), *choilla* zortzitan (156:24, 173:21, 192:9, 206:2, 254:24, 275:23, 297:17, *Capituluen thaula*: 6), *choillac* hirutan (3:3, 166:9-10, 193:17) eta *choillaganat* behin (9:11-12). Beraz, <l> grafia lau alditan eta <ll> 22tan ikusten da. Nahiz eta errata zenbaitetan errepikatzen den (agian grafia zehatza zein izan behar zuen ez jakitearen ondorioz), *choilqui* akatsa izan bide zela ondorioztatzera garamatza, hasierako hipotesia berretsirik: 1760ko edizioaren arduradunak Xurrioren joeraren arabera zuzendu nahi izan zuen *choilqui* forma.

Fiñatceco vs *fñatceco* forma biak askotan topatu ditugu, bakoitza bere adierarekin. Alde batetik, 'bukaera' adiera duten *fiñ*-ak <n̄> grafiarekin adierazita daude: *fiñ* (330:4), *fñean* (349:6), *fñaz* (75:5); eta 'jarri' edo 'ezarri' adiera duten *finca*-k, <n> grafiarekin: *fincatceco* (30:5, 369:17), *fincatcen* (371:5), *finca* (22:4), nahiz zenbait salbuespen ediren ditugun: *fñatcen* (254:6), *fineraino* (155:25). Testuingurua kontuan harturik (*Haiñ khechatua fiñatceco*, *haiñ gogo barraiatua othoitceco*), pentsa genezake gure adibideak 'bukatzeko' esan nahi duela, baina badugu hirugarren argudio bat, are sendoagoa. Urgellek (inprimatzeko) *Imitacionearen* iturri-hizkuntzen kontura egindako lan berrian, itzulpena hiru testuri begira egindakoa dela frogatu du: latinezko edizioen bati, Lemaistre-ren frantsesezko itzulpenari eta Aranbillagaren euskarazkoari. Kasu honetan, Aranbillagaren itzulpenean oinarritu zirela argi ikus daiteke, honek *ackabatceco* erabiltzen baitu, eta latinezkoa aski ezberdina baita.¹⁸ Hortaz, *fñatceco* 1760. edizioan zuzentzaileek egindako errata izan zen (pro *fiñatceco*), ondoko edizioetan errepikatu zutena. Beraz, 1760ko edizioa aurreko akatsak zuzentzen ikusi badugu ere, adibide honek erakusten digu akats berriak egiten ere jakin zuela behin edo behin, eta bai batzuetan, bai besteetan ondoko edizioek jarraitu ziotela, kasu honetan itsuki.

Hala bada, hauek dira 1760ko edizioan egin zituzten akatsak: 4.7. kapituluan *atçarria* → *etçarria* (15) eta perpaus bereko *elheen* → *elkheen* (16) aldaketak ditugu. Adiera ezberdinetako aditzak dira: *atçarria*-k 'esnatua' esan nahi du (ik. *OEH*, s.v. *atzarri*), eta *etçarria*-k 'ipinia', forma zuzena balitz: izan ere, lapurteraz *ezarria* bai, baina *etzarria*-ren adibiderik ez dago, errata ez denik behintzat (ik. *OEH*, s.v. *ezarri*). Hortaz, *atçarria* forma egokia da, eta *etçarria* akatsa. Bestalde, *elhe* 'ele' hitzaren aldaera hasperenduna dugu (ik. *OEH*, s.v. 1 *ele*), eta *elkhe* hitzaren bilaketatik ez dugu atarramentu onik izan (ik. *OEH*, s.v. *elge*). Testuingurua hurrengo da: *Haiñ atçarria elheen aditceco*; *haiñ lotia khorooan cantatceco* (1720A). Hitzen esanahia eta testuingurua kontuan harturik, esan dezakegu *atçarria* eta *elheen* direla forma egokiak, esaldiak zentzua hartzen baitu.

1760ko edizioak badu ezaugarri bat, gure lagin txikiak dioskunaren arabera: <z> eta <s> zuzentzeko joera: 1.1. kapituluko *Eguias* → *eguias* (10) edo *deuz* → *deus* (5),

¹⁷ Zenbakiak orrialdea eta lerroa adierazten dituzte, bata bestetik bi puntuz banaturik. Marratxo erabili da forma lerro batetik bestera zabaltzen dela adierazteko.

¹⁸ Latinez (Kempis 1649: 352): *tam festinus ad finem*. Aranbillagak (1684: 197-198), aldiz: *Haiñ impacient berehala Psalmuen canta ackabatceco*. Honena Lemaistre-ren (1686: 383) frantsesezko itzulpenaren itzulpena da: *Si impatient pour finir bien-tost le chant des Pseaumes*.

adibidez. Mounole eta Gómezek (2018: 499) aipatzen dute ohikoa dela lapurtera eta zuberera klasikoko idazkietan apikariaren grafiaren bidez bizkarkaria adieraztea txistukarietan, eta hain ohikoa ez izan arren, afrikatueta ere gertatzen dela. Ematen duten arrazoa hurrengoan datza: frantses ortografian <s> grafema bizkarkaria adierazteko erabiltzen zen, eta garaiko euskal idazle haiek sistema hura zeukaten eredutzat. Bestalde, frantsesez <z> grafema hitz bukaeran oso urria zela argudiatzen dute, eta <s> grafema, ordea, ugaria. Hortaz, oinarrian arazo grafikoa bide zegoela ondorioztatzen dute, eta arrazoi beragatik sailkatu dugu guk adibidea hizkuntzaz kanpoko aldaketan baitan. Talde berean sartuko dugu bide ezberdina hartu duen 1.1. kapituluko *Eguias* → *eguias* (10) adibidea. Hemen ere, nahiz eta 1720A eta 1720B edizioetan <s> grafemarekin idatzita ageri zaigun, bizkarkaria ahoskatzen zela ziurtzat eman dezakegu. Horren erakusgarri, 1760. urtean <z> grafema lehenetsi izana. Azkenik, lehenengo bi edizioetan apikaria adierazi nahi baina <z> grafemaren bidez idatzi den forma bat aurkitu dugu: *deuz* → *deus* (5) bilakatzen da 1760ko ediziotik aurrera. 1760ko edizioa da, beraz, orokorki zuzenketa gehien egin zituen.

1769ko edizioan sortu zen errata bat ere badugu: *escuetarat* → *escueterat* (25). Gainera, ez da edonolako errata, 1788ko edizioan errepikatuko baita. Honek esan nahi du erabili ditugun 1769ko eta 1788ko aleek akats bateratzaile bat (momentuz) partekatzen dutela.

2.3.3.2. Grafia etimologikoa emateagatik egindako aldaketak ere badaude. Mounole eta Gómezen (2018: 494) arabera, euskara landuak ekarritako joera izan zen: hizkuntza emailaren zein jatorrizko euskararen grafia gordetzen saiatu ziren lapurtera klasikoko idazleak. Hala ere, joera ez zen orokortu eta ez zuen denboran zehar berdin iraun. Beren aburuz, Xuriok grafia fonologikorako joera du, nahiz eta askotan idazkera etimologikoak erabiltzen dituen. Guk azterketarako erabili ditugun laginetan bi adibide topatu ditugu, 4.7. kapituluan: 1720B edizioan *imaginacione* → *imaginatione* (9) aldaketa dugu, non *imaginationem* latinezko formatik <t> grafema lehenetsi den; eta 1788ko edizioan *comunione* → *communione* (31), latinezko *communione*-etik. Hortaz, gure laginetik eratortzen denaren arabera, badirudi Xuriok ondoko batzuek baino grafia etimologikoa erabiltzeko joera apalagoa izan zuela, Mounole eta Gómezek esan bezala (2018: 494).

Bestalde, 1.1. kapituluko *baziñaquizqui* → *bazinaquizqui* (13) adibidean, *i* osteko *ñ* → *n* aldaketa gertatzen da 1769ko edizioan, eta hurrengoetan ere hala ikusten dugu. Pikabearen (1993: 29) azterketaren arabera, xvii. eta xviii. mende erdira arteko literatur lapurteraren idazkietan bustidura adieraztea guztiz zabalduta zegoen, baina 1775etik aurrera galtzen hasi zen, xix. mendean ia guztiz desagertu arte. Caminok zehazten du (a.a.) ahozko mintzoan despalatalizazioa Nafarroa Behereko mendebalean eta Lapurdiko ekialdean gertatu zela, hau da, bien bitarteko barnealdeko euskararen: ez Lapurdiko itsas hegian, ez Azkainen, esaterako. Dena dela, Pikabeak igarri bezala, barnealdeko despalatalizazio horrek eragina izan zuen literatur lapurteraren idazkeran, <ñ> erabiltzeari utzi baitzioten. Horrenbestez, Xurioren 1769ko edizioa idazketa-ohituraren aldaketa horren lekukotasun goiztiarra da, <ñ> kanporatzeko joera Pikabeak emandako data zertxobait aurreratzen duena.

2.3.3.3. Hizkuntzaren berezko aldaketak islatzen dituzten adibideak hiru taldetan sailkatu ditugu. Lehenik, 1.1. kapituluan *ençuten* → *entçuten* (7) eta *ansica-*

bea → *antsicabea* (11, 18) aldaketak egokitzen dira. Lehenengoa 1769ko edizioan gertatzen da, eta hurrengoan ere hala dakusagu. Bigarrena 1760ko edizioan gertatu eta hurrengo bietan gorde da. Nahiz eta gaur egun ozenen osteko txistukariak afrikatuaren alde neutraldu ohi ditugun (ekialdeko zenbait hizkeratan izan ezik), ez da beti horrela izan. Euskara zahar eta klasikoan, Iparraldean ia orokorki frikaria idatzi ohi zuten *n* eta *l* ondoan, eta afrikatua zein frikaria *r* ondoan (Mounole & Gómez 2018: 498). Lehen euskara modernoaren hasieran afrikatuen aldeko joera hazten doa, neutraltzearen adierazpena orokorra izan ez arren (Urgell 2018: 617). Gure adibideetan *n* osteko afrikatzea adieraztearen aldeko zantzuak aurkitu ditugu.

Bigarrenik, herskariaren hasperena adierazteko zalantzak daude edizioen artean. Alde batetik, 4.7. kapituluan *baithan* → *baitan* (7) aldaketa gertatzen da 1760ko ediziotik aurrera. *OEH*ren arabera (s.v. 2 *baita*) *baita* orokorra da Lapurdin. 1800 arte <th> digrafoa nagusi da, baina badira Etxepareengandik hona *baitan* idazten duten egileak. Hala ere, azterketa sakonago bat beharko da aldaketa sistematikoa den edo ustekabean egindakoa den jakiteko.

Bestetik, kapitulu berean *gorputceco* → *gorphutceco* (13), *gorputça* → *gorphu-țca* (26), *gorputçaren* → *gorphutçaren* (27) eta *gorputçarequiñ* → *gorphutçarequiñ* (30) adibideak ditugu. 1760ko aldaketak dira denak. *OEH*ren arabera (s.v. *gorputz*), Iparraldean beti *gorphutz* dokumentatzen da, Zuberoan izan ezik. Ondorio emankorrrak ateratzeko sakonago aztertu beharko da, baina baliteke 1720Ako erraten zuzenketa izatea, bai baitago *gorphutz*-en adibide bat behintzat (19:11). Gainera, behin eta berriz egin izanak erakusten digu 1760ko edizioaren paratzaileak oso argi zeukala hitza nola idatzi behar zuen.

2.3.4. *Puntuazioa eta hitzen ezabaketa*: horrelako aldaketek sarritan ez dute arreta handirik merezi, ez gurea bezalako lehen hurbilketa batean behintzat. Alabaina, ikusiko dugunez, aurkitu ditugunetako batzuek ondorio garrantzizkoak ateratzeko modua eman digute, zeren eta aurretik egin ditugun suposizioak indartzeko gauza baitira.

1.1. kapitulan, bi puntuak puntu eta komaren bidez ordezkatuak izan dira behin 1720B edizioan. Gainerako guztietan bi puntuak topatu ditugu. Hortaz, *contrefaçonaren* beste errata baten aurrean geundeke. 4.7. kapituluan *haiñ flaco* → *flaco* (20) aldaketa gertatzen da. Ohikoa da oharkabean *haiñ* bezalako hitzak kopiatzen ahaztea, galduz gero ez dutelako esanahia asko aldatzen.¹⁹ Akatsa 1769ko edizioari dagokio, eta 1788ko edizioan gorde da. Horra, 1788ko edizioa 1769koaren gainean egin zela erakusten digun beste akats bateratzaile bat.

2.4. *Constitutio stemmatis codicum*

Bildu dugun informazioarekin *Jesu-Christoren Imitacionearen stemma codicumaren* proposamena egingo dugu. Kapituluaren arteko eraketatik emaitza oso gar-

¹⁹ «Villasanteren edizioan [Axularren liburuarenean], akats txiki anitzez gainera, hitz solteak eta are sintagma eta lerro osoak eskas dira han-hemen, eskuarki eskas diren hitzak edo hitzek pasartearen ulerkera larriki oztopatzen ez dutenean: posesibo bat, izenondo bat, *ere* partikula, *eta-z* loturiko zerrenda baten ataletako bat, etab.» (Urgell 2015: ix, 2. oh.).


biak atera ditugu, lagina txikia izan arren. Lehenik eta behin, 1720B edizioa, Vinsonek *contrefaçontzat* joa, guztiz baztertzen lagundu digu. 1720A *princeps* edizioan ikusi ez ditugun mota guztietako erratak sortu zituela ikusi dugu, 4.7. kapituluaren batez ere. Bukaerako kapituluaren arreta gutxiago eskaintzea ohikoa da. Edizio honetako (1720Bko) erratak ugari izateaz gainera (gure laginean 10), handi xamarrak dira, batzuetan testua ulergaitza bihurtzen baitute. Hona hemen batzuk: 1.1. kapituluaren, *meditatcea* → *metitac a* (3), *Sainduec* → *Saieduec* (4); eta 4.7. kapituluaren, *ahal* → *hal* (4), *campoco* → *camgoco* (10). Errata horiek ez direnez hurrengo edizioetan errepikatzen, ondoriozta dezakegu hurrengoek ez dutela 1720B edizioarekin zerikusirik izan.

1760ko edizioa, aldiz, nahiko txukuna da. Nabarmena da 1720Ari atxikitzen zaiola, bi edizioek irakurketak partekatzen baitituzte, hala nola *ençuten* (7) (1769 & 1788 *entçuten*) edo *escuetarat* (25) (1769 & 1788 *escueterat*). Zenbaitetan akatsak zuzentzen ditu: adibidez, *Eguias* → *Eguiaz* (1.1. kap., 10). Berariazko aldaketak ere egiten ditu, era ezberdinetakoak, hala ortotipografiazkoak nola ortografiazkoak: esaterako, *behardu* → *behar du* (1.1. kap., 9) edo *ezpailaiteque* → *ez bailaiteque* (4.7. kap., 5).

Agerikoa da hurrengo edizioa, 1769koa, 1760koaren gainean egina dela, zeren eta bai honen emendakinak, bai honen zuzenketak berdin ematen baititu eta, gainera, bien arteko bi akats bateratzaile ere topatu baititugu: *elkheen* pro *elbeen* (16) eta *etçarria* pro *atçarria* (15).

Azkenik, aurretik jakin ezin genuen ondorio bat ateratzeko balio izan digu edizioen arteko konparaketak: 1788ko edizioak 1769koari jarraitzen dio. Izan ere, bien arteko akats bateratzaileak eta aldaera berri partekatutak aurkitu ditugu: *entçuten* (1.1. kap., 7), *bazinaquizqui* (1.1. kap., 13), *flaco* (4.7. kap., 20) eta *escueterat* (4.7. kap., 25). Gainera, 1760ko edizioaren akatsetako bat (*Iaunac* → *Iauna*, 4.7. kap., 34) zuzenduta dakarte biek.

Orain artean bildutako emaitzen ondorioz, honako *stemma* hau osatu dugu Xurioren liburuaren XVIII. mendeko edizioen arteko filiazioaren berri emateko:



11. irudia

Stemma codicum

3. Ondorioak

Hizkuntzaren historian sakondu ahal izateko, bibliografia materiala behar-beharrezko lanabesa da, eta gurean ezin esan genezake behar beste garatutako ikerlerroa

denik. Iparraldeko euskara zahar eta klasikoko obra asko oraindik ez dira nahi genukeen bezain ongi aztertuak izan. Horren adibide da lapurtera klasikoaren epigonotzat har dezakegun Mixel Xurio, 1720. urtean argitaratu zen *Jesu-Christoren Imitacionearen* autorearen (edo autoreetako bat: cf. Urgell inprimategian). Guk obra honen XVIII. mendeko edizioetan sakondu dugu, haien arteko erlazioa zein izan zen argitzeko helburuarekin.

Filologiaren metodologia erabili dugu edizioen arteko filiazioa zehazteko (Blecu 1983, *ap.* Atutxa 2008). Metodologia honi jarraikiz, lau ataletan banatu dugu gure egitekoa. Hasteko, *fontes criticae* atala (§ 2.1), non materialen bilketa eta sailkapena egin dugun. Hautatu ditugun liburutegi eta web-atarietatik guztira 14 ale digitalizatu bildu ditugu: 1720. urteko edizioetatik lau ale (Vinson 49a edo 49b), 1760kotik bi (Vinson 49c), 1769kotik lau (Vinson 49d) eta, azkenik, 1788kotik lau (Vinson 49e).

Collatio codicum atalean (§ 2.2), aleak erkatu ditugu, alderdi formalaren eta edukiaren aldetik. Lehenik, aleen azalaren konparaketa egin dugu. Azalik gabeko aleetan tako xilografikoekin egindako grabatuak erabili ditugu zein ediziotakoak diren zehazteko. Aleak bost ediziotan sailkatu ahal izan ditugu: 1720A, 1720B, 1760, 1769 eta 1788. Jarraian, ale bakoitzaren atal eta orrialde kopurua deskribatu dugu. Horren bidez zenbait filiazio harreman argitara atera ahal izan ditugu: 1720A *princeps* edizioa izan zen, eta horren gainean egin zen 1720B kontrafaktua. 1760ko edizioa ezinbestean aurreko bi edizioetako batean oinarritua izan behar da, nahiz haietan ez dauden emendakin berriak izan. Emendakin horiek 1769ko edizioan ere badaudenez, 1760koaren gainean egindakotzat jo behar dugu. 1788ko edizioak ere baditu 1760ko emendakinak, baina horregatik bakarrik ezin jakin 1760ko edo 1769ko edizioan oinarrituta dagoen.

Ondoren, edizio bakoitzaren hasierako eta bukaerako lagin bat hartu eta konparatu egin ditugu (*examinatio et selectio*, § 2.3): lehendabiziko liburuko 1. kapitulua eta laugarren liburuko 7. kapitulua hautatu ditugu. Lagina txikia izan arren, emaitzak oparoak izan dira, eta aurretik ondorioztatutakoak bermatzeko ez ezik, oraindik erantzun gabe genituen zalantzak argitzeko ere balio izan digute: Xurioren XVIII. mendeko tradizioan 1720B edizioa akastunena da, ondorengo edizio batek ere jarraituko ez duena. Bestalde, 1760ko edizioak tradizioan garrantzi berezia daukala esan dezakegu, *princeps*aren jarraipena delako eta hurrengo bi edizioen oinarria izango delako (hirurek partekatutako akats bateratzaileak lekuko). Gainera, konparazioz akats gutxiko edizioa da, guk erabilitako alea behintzat. Azkenik, 1788ko edizioa 1769koaren gainean egindakoa dela egiaztatu dugu, akats bateratzaile eta berrikuntza partekatuengatik. Laburki esanda, 1720B edizioa izan ezik, besteek zeinek bere aurrekoari jarraitzen diotela argitu ahal izan dugu eta, arestian aipatutako pausoei esker, edizioen arteko filiazio harremanen proposamena egin (*constitutio stemmatis codicum*, § 2.4).

Azkenik, <n>aren ezabaketa Pikabeak (1993) markatu baino urte gutxi batzuk lehenago lekukotu dugu *Imitationearen* 1769ko edizioan, geroako edizioak ere aztertzeko euskararen historiari ekar diezazkiokeen onurak berriz frogaturik.

Lan honen bitartez Xurioren liburuaren ezagutzan aurrerapen esanguratsu batzuk egin diren arren, oraindik ere lan handia falta zaigu Xurioki beharko lukeen edizio kritikoa egiteko. Poztasun handiz ikusiko nuke aurrerantzean norbaitek lanari jarraipena emango balio.

4. Bibliografia

- Aranbillaga. 1684. *Jesu Christoren imitacionea d'Arambillaga Apheçac escaraz emana*. Baiona: Antonio Fauvet.
- Atutxa, Isaak. 2008. Las obras de Joanes Etxeberri de Ziburu [hitzaldia, 2008-09-10]. In «*Monumenta Linguae Vasconum proiektua (2002-2008). Sei urte ikerketan*» mintegia. Gasteiz: UPV/EHU. https://www.ehu.es/documents/6174861/6203039/Atutxa-Las_obras_de_Etxeberri_de_Ziburu.pdf.
- Bartolome, Prai. 1986 [1816]. *Euscal-errietaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*. Bilbo: Euskaltzaindia (Luis Mari Mujikaren argit.).
- Blecua, Alberto. 1983. *Manual de crítica textual*. Madril: Castalia.
- Gaskell, Philip. 1999. *Nueva introducción a la bibliografía material*. Gijón: Trea.
- Gorrotxategi, Joakin. 1984. *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.). 1995. *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Igartua, Iván, Joakin Gorrotxategi & Joseba A. Lakarra (arg.). 2018. *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Kempis, Thomas à. 1649. *Thomae / A Kempis / canonici regularis / ordini S. Augustini / de Imitatione / Christi / libri quatuor. / Ex recensione P. IOANNIS FRONTONIS [...]*. Paris: Sebastianum Cramoisy, Architypographum Regis, & Reginae Regentis: et Gabrielem Cramoisy.
- Lafitte, Pierre. 1931. *Eskualdunen loretegia: XVI garren mendetik hunateko liburuetarik bildua*. Baiona: Lasserre Liburutegia.
- Lakarra, Joseba A. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31(2). 447-535.
- Lemaistre, Louis-Isaac. 1686. *De l'imitation de Jesus-Christ. Traduction nouvelle, par le Sieur de Beüil, prieur de Saint Val. Vingt-cinquième edition*. Bruxelles: Eugene Henry Fricx. <https://books.google.es/books?id=nexoAAAAcAAJ>.
- Martínez Areta, Mikel (arg.). 2013. *Basque and Proto-Basque (Mikroglottika, Minority Language Studies 5)*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Michel, Francisque. 1857. *Le Pays Basque*. Paris: Librairie de Firmin Didot frères.
- Mounole, Céline & Ricardo Gómez. 2018. Euskara zahar eta klasikoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 469-489. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Oihartzabal, Beñat. 2001. Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaez (xvii.-xviii. mendeak). *Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak* 9. 9-46.
- Onaindia, Santi. 1972. Mixel Xurio. In *Euskal literatura I*. Donostia: Etor. <https://zubitegia.armiarma.eus/?p=ona-716>.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (xvii.-xix)*. *Bilakaera baten urratsak*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoa Donostia Kutxa.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2007. Axularren *Gero* liburuaren ale kasi birjinalako «M» pleguaz. *FLV* 105. 303-323. <https://doi.org/10.35462/flv105.5>.
- Trask, Robert L. 1997. *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- Ulibarri, Koldo. 2009. *Viva Jesus* dotrinaren azterketa bibliografia materialaren arabera. *ASJU* 43(1-2). 861-871.

- Urgell, Blanca. 2013. Euskal Filologia: zer (ez) dakigu 25 urte beranduago? In Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra (Gasteiz, 2012 / X / 8-11)*, 533-570. Gasteiz: UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2015. *Axular. Gero (edizio kritikoa)*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urgell, Blanca. Inprimategian. 1720ko *Imitazionearen* iturriak: lehen hurbilketa. *ASJU*.
- Urgell, Blanca. Prestatzen. Euskararen Historia I: Historiaurrea eta Protohistoria. Gasteiz: UPV/EHU.
- Urkizu, Patri. 2004. *Joan Perez de Lazarraga. Dianea & Koplak. Madrid 1567*. Donostia: Erein.
- Villasante, Luis. 1979. *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Editorial Aranzazu.
- Vinson, Julien. 1891-1898. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: J. Maisonneuve (Berrargit. faksim. Julio Urquijoren oharrekin. *ASJUren Gehigarriak* 9. Donostia: «Julio de Urquijo» Mintegia & GFA, 1984).

1. eranskina. 1. liburuko 1. kapituluaren erkaketa

Geroko edizioaren batean aldatuko diren formetan letra lodia ipini dugu, aldaketa gehienak noiztik aurrera jazo ziren modu argiago batean ikus dadin. Formen aurreko zenbakiak agerrialdean orrialdea eta lerroa adierazten dituzte. Lerroei egokituak ondozatze-zenbakiak lerro errealen arabera finkatu dira, atal-buruak eta tartreak aintzat hartu gabe.

	1720A-BFA	1720B-SSF	1760-ELO	1769-KMK	1788-KMK
1	1, 8: Guciac	1, 8: Guciac	3, 7: guciac	25, 7: guciac	27, 7: guciac
2	2, 4-5: i ç anbeharda	2, 4-5: i ç anbeharda	4, 1-2: i ç an behar da	26, 1-2: i ç an behar da	28, 1-2: i ç an behar da
3	2, 7: meditatcea	2, 7: meditatc a	4, 3: meditatcea	26, 3: meditatcea	28, 4: meditatcea
4	2, 8: Sainduec	2, 8: Sateduec	4, 4: Sainduec	26, 4: Sainduec	28, 4: Sainduec
5	2, 9: deuz	2, 9: deuz	4, 5: deus	26, 5: deus	28, 5: deus
6	2, 11: jaincoaren	2, 11: jaincoaren	4, 6: Jaincoaren	26, 6: Jaincoaren	28, 6: Jaincoaren
7	2, 14: en ç uten	2, 14: en ç uten	4, 9: en ç uten	26, 9: en ç uten	28, 10: en ç uten
8	2, 17: ezbaitute	2, 17: ezbaitute	4, 11-12: ez baitute	26, 12: ez baitute	28, 13: ez baitute
9	2, 20: behardu	2, 20: behardu	4, 14: behar du	26, 14: behar du	28, 16: behar du
10	3, 1: Eguiaz	3, 1: Eguiaz	4, 22: Eguiaz	26, 22: Eguiaz	28, 24: Eguiaz
11	3, 3: berthute	3, 3: berthutte	4, 23-24: berthute	26, 23-24: berthute	28, 25-26: berthute
12	3, 7: nolapresuna	3, 7: nolapresuna	4, 28: nola presuna	26, 28: nola presuna	28, 30: nola presuna
13	3, 10: baci ñ aquizqui	3, 11: bazi ñ aquizqui	5, 2: bazi ñ aquizqui	27, 2: bazi ñ aquizqui	29, 2: bazi ñ aquizqui
14	3, 11: ezbadu ç u	3, 12: ezbadu ç u	5, 3: ez badu ç u	27, 3: ez badu ç u	29, 3: ez badu ç u
15	3, 16-17: choilqui	3, 17-18: choilqui	5, 8: choil l qui	27, 8: choil l qui	29, 8: choil l qui
16	4, 6: dohacabebat	4, 6: dohacabebat	5, 25: dohacabe bat	27, 25: dohacabe bat	29, 26: dohacabe bat
17	4, 10: handibat	4, 10: handibat	5, 29: handi bat	27, 29: handi bat	29, 30: handi bat
18	4, 16: : beguia	4, 16: ; beguia	6, 5: : Beguia	28, 5: : Beguia	30, 5: : Beguia
19	4, 22: complitu	4, 22: complitu	6, 10: complitu	28, 10: complitu	30, 10: complitu

2. eranskina. 4. liburuko 7. kapituluaren alderaketa

Aurreko taulan erabilitako irizpide berak erabili ditugu: letra lodiak geroko edozioren batean aldatuko diren formak markatzen ditu, formen aurreko zenbakiek agerraldiaren orrialdea eta lerroa, eta lerroak atal-buruak eta tarreak aintzat hartu gabe zenbatu dira.

	1720A-BFA	1720B-BMB	1760-ELO	1769-KMK	1788-SSF
1	379, 10: APheçac	379, 10: APheçac	315, 13: APHEÇAC	377, 13: APHEÇAC	444, 7: APHEÇAC
2	379, 11-12: errecibitçeço behar	379, 11-12: errecibitçeço behar	315, 14: errecibitçeço, behar	377, 14: errecibitçeço, behar	444, 8: errecibitçeço, behar
3	379, 16: phuru, eta	379, 16: phuru, eta	315, 18: phuru, eta	377, 18: phuru, eta	444, 12: phuru; eta
4	379, 19: ahal	379, 18: hal	315, 21: ahal	377, 21: ahal	444, 15: ahal
5	379, 21-22: expailaiteque	379, 20-21: expailaiteque	315, 23: ez bailaiteque	377, 23: ez bailaiteque	444, 17: ez bailaiteque
6	380, 5: Jaincoari, çure	380, 5: Jaincoari, çure	316, 2: Jaincoari çure	338, 2: Jaincoari çure	444, 24: Jaincoari çure
7	380, 7: baithan	380, 7: baithan	316, 3: baitan	338, 3: baitan	444, 25: baitan
8	380, 13: (...), eta	380, 12: (...), eta	316, 8: (...), eta	338, 8: (...), eta	445, 4: eta, (...)
9	380, 15: imaginacione	380, 15: imaginacione	316, 11: imaginacione	338, 11: imaginacione	445, 7: imaginacione
10	380, 18: campoco	380, 18: campoco	316, 13: campoco	338, 13: campoco	445, 9: campoco
11	380, 19: ansicabea	380, 19: ansicabea	316, 14: ansicabea	338, 19: ansicabea	445, 10: ansicabea
12	380, 21-22: , eta dostatcerat,	380, 21-22: , eta dostatcerat,	316, 15-16: , eta dostatcerat,	338, 15-16: , eta dostatcerat,	445, 11-12: eta dostatcerat
13	380, 24: gorputceco	380, 24: gorputceco	316, 18: gorputceco	338, 18: gorputceco	445, 14: gorputceco
14	380, 25: dituena :	380, 25: dituena :	316, 19: dituena ;	338, 19: dituena ;	445, 15: dituena ;
15	381, 12: atçarria	381, 12: atçarria	317, 5: etçarria	339, 5: etçarria	446, 1: etçarria
16	381, 12: elheen	381, 12: elheen	317, 5: elkheen	339, 5: elkheen	446, 1: elkheen
17	381, 14: finatceco	381, 14: finatceco	317, 7: finatceco	339, 7: finatceco	446, 3: finatceco
18	381, 16: ansicabea	381, 16: ansicabea	317, 9: ansicabea	339, 9: ansicabea	446, 3: ansicabea
19	381, 16: eliçaco	381, 16: eliçaco	317, 9: Eliçaco	339, 9: Eliçaco	446, 3: Eliçaco
20	381, 26: hain flaco	381, 26: hain flaco	317, 18: hain flaco	339, 18: flaco	446, 14: flaco
21	382, 6: chuchentceco	382, 6: chuchentceco	317, 27-28: chuchentceco	339, 27-28: chuchentceco	446, 24: chuchentceco
22	382, 7: ethorquiçunerat	382, 7: ethorquiçunerat	317, 28: ethorquiçunerat	339, 28: ethorquiçunerat	446, 24: ethorquiçunerat
23	382, 9: bihoțaz	382, 9: bihoțaz	318, 1: bihoțaz	340, 1: bihoțaz	446, 26: bihoțaz
24	382, 12: utz çatçu	382, 12: utz çatçu	318, 3: utsatçu	340, 3: utsatçu	446, 28: utsatçu
25	382, 12: escuetarat	382, 12: escuetarat	318, 3-4: escuetarat	340, 3-4: escuetarat	446, 29: escuetarat
26	382, 13: gorputça	382, 13: gorputça	318, 4: gorputça	340, 4: gorputça	446, 29: gorputça
27	382, 17: gorputçaren	382, 17: gorputçaren	318, 7-8: gorputçaren	340, 7-8: gorputçaren	447, 3: gorputçaren
28	382, 18: handitan	382, 18: handitan	318, 9: handitan	340, 9: handitan	447, 4: handitan
29	382, 22: eta	382, 22: etai	318, 11: eta	340, 11: eta	447, 6: eta
30	382, 26-27: gorputçarequiñ	382, 26: gorputçarequiñ	310, 9: gorputçarequiñ	340, 15: gorputçarequiñ	447, 10: gorputçarequiñ
31	381, 28: comunione	382, 27-28: comunione	318, 10: comunione	340, 16: comunione	447, 11-12: comunione
32	382-383, 29-1: egin ahala	382-383, 29-1: egin ahala	318, 17: egin ahala	340, 17: egin ahala	447, 13: eginahala
33	383, 4: buruaz	383, 4: buruaz	318, 20-21: buruaz,	340, 20-21: buruaz,	447, 17: buruaz,
34	383, 5: launac	383, 4: launac	318, 21: launac,	340, 21: launac,	447, 17: launac,
35	383, 7: dadin :	383, 7: dadin :	318, 23: dadin ;	340, 23: dadin ;	447, 19: dadin ;

3. eranskina. Xurioren *Imitazionearen* itzulpenaren XVIII. mendeko ale digitalizatuak aztertutako bildumetan

Letra lodiz nabarmendu gabe dauden aleak digitalizatu gabekoak dira, eta lodiz nabarmendutakoak digitalizaturik eskuragarri ditugunak. Laburdurak: KMK (Koldo Mitxelena Kulturunea), BFA (Bizkaiko Foru Aldundia), SSF (Sancho el Sabio Fundazioa), NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), ELO (Eusko Legebiltzarraren Ondarea), BNF (Bibliothèque Nationale de France) eta BMB (Bibliothèque Médiathèque Bayonne). Ale digitalizatu bakoitzean lan honetan erabili ditugun laburdurak (1720A-BFA edo 1769-KMK erakoak) erantsi ditugu.²⁰

	KMK ³	BFA	SSF	NUP
1720A	https://www.kmliburutegia.eus/Record/556084 Signatura: J.U. 4751 b, Alea: 560728, V[inson] 49a.	https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/handle/20.500.11938/74867 Signatura: VR-10, 1720A-BFA		
1720B	https://www.kmliburutegia.eus/Record/25821 Signatura: J.U. 4751, Alea: 25823, V. 49b.	—	https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/54053 Signatura: ZRV 1474, Alea: 51139, 1720B-SSF	https://biblioteca.unavara.es/abnetpac/abnetd.egi?TTN=411037 Signatura: Vinson, 49. b. 1720B-NUP
1760	https://www.kmliburutegia.eus/Record/19028 Signatura: J.U. 4751 c, V. 49c. 1760-KMK	—		
1769	https://www.kmliburutegia.eus/Record/19032 Signatura: J.U. 4751 d, V. 49d. 1769-KMK	https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/handle/20.500.11938/80052 Signatura: VR-838, 1769-BFA	https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/8279 Signatura: ZRV 1233, Alea: 9608, 1769-SSF	
1788	https://www.kmliburutegia.eus/Record/19035 Signatura: 2434G, Alea: 19038, V. 49e. https://www.kmliburutegia.eus/Record/19035 Signatura: J.U. 4751 e, Alea: 62731. 1788-KMK	—	https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/84090 Signatura: ZRV 4120, Alea: 168989, 1788-SSF	

²⁰ [Julio] U[urquijo] laburdura dararmaten aleek *Fondo gordiak* izeneko bilduman zeuden orainsu arte, kulturunean bertan, baina tarrean Gipuzkoako Artxibo Historikora (Oñati) aldatuak izan dira, katalogoak dioenaren arabera.

	Liburuklitik	Bilketa	Baionako Euskal Muscoa ²¹	BNF
1720A		https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go124729.locale=eu Kokapena: Bordeleko hiri liburutegia. Marka: T 6342 Rés.		http://ark.bnf.fr/ark:/12148/cb33426740h Z BASQUE-786.
1720B		https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go692530.locale=eu https://mediatheque.bayonne.fr/iguana/www.main.cls?surl=search&p=#recordId=1,54475 Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.6 (LAF0006 dig.) 1720B-BMB	https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go727663.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: RES 130-2	
1760	https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/bib/1471636 .do Eusko Legebiltzarreko Liburutegia Signatura: 1760-ELO		https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723651.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: RES 130. https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723651.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: P 572.	http://ark.bnf.fr/ark:/12148/cb33426741v Z BASQUE-787.

²¹ Baionako Euskal Museoaren emaitzak *Bilketa* biltegi digitalaren bidez aurkitu ditugu. Hala ere, bereiz aipatzea erabaki dugu, haien kopuru handia dela eta.

	Liburuklitik	Bilketa	Baionako Euskal Muscoa	BNF
1769		<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go124728.locale=eu https://bibliotheque.bordeaux.fr/ark:/27705/ca0000685537.locale=fr Kokapena: Bordeleko hiri liburutegia. Marka: T 6343.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go190.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.5.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go190.locale=eu https://mediatheque.bayonne.fr/figuana/www.main.cls?url=search&p=#recordId=1.54485 Kokapena: Baionako mediateka. Marka: WP.221 FR.</p>	<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723646.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: P 3225.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723646.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: P 8901.</p>	<p>https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k9483681 BNF, département Littérature et art, Z BASQUE-788. 1769-BNF</p>

	Liburuklik		Bilketa	Baionako Euskal Museoa	BNF
1788	<p>https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/bib/1471546. do Eusko Legebiltzarreko Liburutegia Signatura: A-X12, Y2 1788-ELO</p>	<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go191.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.7.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go191.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.7 BIS.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go191.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: WP.222 FR.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go134580.locale=eu https://mediatheques.agglo-pau.fr/detail-d-une-notice/notice/945470105-6428 Kokapena: Paueko mediateka. Marka: 2594.</p>	<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 3226, Code bares: 68-195.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 3226, Code bares: 68-195 b.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 3226, Code bares: 68-195 b.</p>	<p>https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k948369d BNF, département Littérature et art, Z BASQUE-789. 1788-BNF</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 515.</p>	

	Liburuklitik	Bilketa	Baionako Euskal Museoa	BNF
Data-rik ez			<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go/723650.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P 516. Izenburu-orrialdea falta da.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go/723645.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P 3224. Izenburu-orrialdea falta da.</p>	